

OTOI.eus

FEDEA ETA ESPIRITUALTASUNA
GURE HITZETAN

ZER DA OTOI.EUS

Otoi.eus barnekotasuna euskaraz bizi nahi duten pertsonei zuzenduriko webgunea da.

2022ko urtarrilean sortua, proiektuaren helburua Interneten fedea egunero elikatzeko euskarazko baliabide bat eskaintzea da. Espiritualtasunaren eremuan euskaraz antzematen den hutsunea bete nahi du, sorkuntza sustatuz eta Interneten askotariko pertsonentzat topaleku bat eskainiz.

Webgune txukun batean bilduta, proiektuaren balio nagusia bere inguruan elkarturiko egileen sarea da. Berrogei kolaboratzaile inguruk osatzen du lantaldea. Guztiek borondatez eta konpromiso pertsonalagatik parte hartzen dute. Haien eskutik, ekarpen desberdinak jasotzen ditu irakurleak: otoitzak, gogoetak, iruzkinak, poemak... Testu idatzia da nagusi, baina beste formatuei aterik itxi gabe: audioa, bideoa, etab. Webguneak email eta sare sozialen bitartez ere zabaltzen ditu edukiak.

Helduentzako webgunea da otoi.eus, baina helduen multzo horretan haur ez diren guztiak hartuz. Kristau fededun euskaldunengana eta bilaketan ari diren pertsonengana iritsi nahi du.

EZAUGARRI NAGUSIAK

- Sentsibilitate, ikuspegi eta karisma desberdinei irekia dagoen elkargunea da Otoi.eus.
- Euskara da webguneak erabiltzen duen hizkuntza. Berenberegiz beste hizkuntzetatik euskarara ekarritako otoitzei eskaintako atalaz kanpo, edukiek jatorrizkoak behar dute izan.
- Kalitatezko edukiak eskaintzea du helburu, bi zentzutan: eduki aldetik eta idazkera edo komunikazio aldetik. Mamia eta forma, biak hartzen dira kontuan egileak gonbidatu, hauei laguntza eskaini eta webgunearen aniztasunean koherentzia zaintzeko.
- Euskal Herriko Elizak bizi dituen zailtasun, oztopo, eta batzuetan iskanbilan artean, fedearen bizipenari, otoitzari, eta giza errealitateari ematen dio lehentasuna. Hain zuzen ere, egungo errealitate horri, Elizari, gizarteari eta kulturari egin nahi dio ekarpen.
- Mezu iradokitzailea bilatzen du, ez asertiboa; errespetuzkoa, ez paternalista; sentiberatasun desberdinei irekia, ez zurruna...

WEBGUNEAREN EGITURA

Webguneak, martxan jartzeko unean, ondorengo sei atalak ditu, baina proiektu bizia izanik, beharren arabera aldaketak izan ditzake.



1. HITZA

Eguneko Ebanjelioari eginiko iruzkin laburrak, fededunak Jesusekin topo egiteko lagundu nahian.



4. GURERATUAK

Beste hizkuntza askotatik euskaratutako otoitzak. Jainkoaren esperientziaren aberastasun unibertsala dakarkigu gurera.



2. GOGOETAN

Errealitatearen kontenplazioa, esperientzia pertsonalak, testigantzak, gaurkotasuneko gaiei buruzko iruzkinak, gogoeta espiritualak... Bizitzako arlo guztietan Jainkoa antzematen laguntzen digun atala.



5. EZAGUTUZ

Arlo desberdinetako ezagutzei buruzko pildoratxoak, adituen eskutik: Teologia, espiritualtasuna, historia eta bestelako jakingarriak.



3. OTOIKA

Euskaraz sorturiko otoitz, poema eta bertsoak. Euskaraz egungo lengoia eta sentsibilitatea erabiliko duten otoitz xumeak, eta baita olerkiak ere.



6. LEIHOA

Fedearen ikuspegitik film, liburu, kantu eta artelanei buruzko iruzkinak. Kultura eta fedea hartu-emanen.

ZABALKUNTZA

Webguneaz gain, zabalkuntzarako tresnak honakoak dira:

EMAIL BIDALKETA

Izena ematen duten erabiltzaileek goizero jasotzen dute otoi.eus webgunearen mezua. Ohikoena buletinak gutxienez bi eduki eskaintzea da: egun horretako *Hitza* (Ebanjelioa eta iruzkina) eta gainontzeko atalen artetik beste bat.

SARE SOZIALAK

Twitter, Facebook eta Instagram sare sozialetan presentzia du otoi.eus proiektuak.



NOR GARA

Otoi.eus Jesusen Lagundiaren Loiola Plataformako Inkulturazio Batzordearen ekimena da. Hasieratik Elizako talde desberdinekin partekaturiko proiektua izan da eta sentsibilitate desberdinei irekia egon da.

Proiektuaren ardura orokorra Otoi.eus kontseiluarena da. Kontseilua da egileak gonbidatu eta onartzen dituen.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://otoi.eus/nor-gara>

HARREMANAK:

otoi@otoi.eus